

Alkatearen probidentzia

Oñatiko Udaleko Lurralde Antolaketako departamenturen egoera ikusita: argiketariako ofiziala bajan dagoen bitartean postua betetzeko pertsona bat kontratatzeke proposamena egiten da.

190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko dena, bere 58. Artikuluak dio:

"1- Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluenak izatea bideratzen dutela.

2- Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3- Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4- Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetatik baliatzeko aukera egongo da."

Halaber, abenduaren 30eko 11/2020 Legeak, 2022 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 19. artikuluan, honako hau xedatzen du: "Ezin izango da aldi baterako langilerik kontratatu, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik eta bitarteko funtzionarioen izendapenik egin ere, salbuespenezko kasuetan izan ezik, eta premiazko eta atzeraezinazko beharrianak betetzeko."

Oñatiko Udalak duen lan poltsan ez dago inor eta inguruko Udalek ez dute lan poltsarik, beraz, Lanbidera jo behar da.

Argiketariako ofiziala izatea beharrezkoa da, zerbitzua ondo emateko. Horregatik, komenigarria eta beharrezkoa da enplegu zerbitzu publikoetatik hautagai bat izendatzea, argiketariako ofiziala kontratatzeke.

Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA XEDATZEN DUT:

1.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako, argiketaria ofizialaren postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena, 10.1.b artikulua arabera, ordezkaturako langilearen absentziak irauten duen bitartean, lanpostua gordetzeko eskubidearekin (2720/1998 Errege Dekretua, 4. Artikuluan), enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan-kategoria horretako hautagaiak aukeratuz. Hileko soldata gordina ordezkatzeko duen langilearen lanpostukoa izango da, parte proportzionalan.

2.- Honako profil hau eskatzen da:

Argiketariako ofiziala (C2), postua betetzeko:

Lan kontratu mota: aldi baterakoa, ezintasun egoera irauten duen bitartean

Jardunaldia: %100

Hileko soldata gordina: Argiteriako ofizialari dagokiona

3.- Hautagaiak hautatzeko, balorazio-irizpide hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Beharrezko prestakuntza:

- LH I elektrizitatean edo baliokidea.
- B gidabaimena
- Instalatzaile txartela
- Euskara 2HE

3.2 Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak (gehienez 5 puntu):

- Euskara 3HE (2 puntu)
- Lanpostuarekin zerikusia duten ikastaroak (0.5 puntu/orduko)

3.3 Titulu akademiko ofizialak (gehienez 5 puntu)

- Deialdian parte hartzeko beharrezkoa denaz bestelako tituluak, betiere erabilgarriak badira deituko lanpostuan aritzeko. Epaimahaiak baloratuko ditu egokiak diren edo ez, baina beroriei eman beharreko puntuak ere, baina ezin izango du, inolaz ere, 2 puntu baino gehiago eman goragoko titulu bakoitzeko eta puntu 1 maila bereko titulu bakoitzeko. Lanpostuaren konpetentzien artean kanpoko hizkuntzak beharrezkoak badira titulu ofizialak gehienez ere 3 puntuen balorazioa izango dute eta hizkuntzak 2 puntu.

3.3 Lanbide-esperientzia (gehienez 10 puntu):

- Deitzen den azpitaldea eta lanpostua bera denean → 0,20pt/hilea
- Azpitaldea goragoko edo beheragokoa denean, baina lanpostu/sail berdina → 0,15 pt/hilea
- Azpitalde bera baina lanpostu/sail ezberdina → 0,12 pt/hilea
- Goragoko/beheragoko azpitaldean eta lanpostu/sail ezberdinean → 0,09 pt/hilea
- Enpresa pribatuan (hala irizten denean) → 0,05 pt/hilean

4. Epaimahaikideak:

GGBB eta Antolaketako arduraduna

Brigada eta Herri Lanen arduraduna

Oñatin, sinadura elektronikoan agertzen den datan

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui Andrea.

SINAd919b481-f5c8-4dd2-9486-6e9e760632b4

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • oñati.eus



EKS | CSV: SINAd919b481-f5c8-4dd2-9486-6e9e760632b4

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	Argiteriako ofiziala. Lanbide. Alkate probidentzia
CSV/EKS:	SINAd919b481-f5c8-4dd2-9486-6e9e760632b4